

# 4

# ÁRALDEA

IPUI ZAÑA









AŖGIA'ren idaztiak

# IPUIAK

ELURMENDI'K EUSKERATUAK

Erderaz idatzi diran ipui ta fabularik ederenak, eta ikastetxeetarako irakur-gairik egokiena.

BI EŖREAL



# YOLANDA

Pierre Lhande Aitak egindako irakur-gaia

2 PESETA



# Gaurko izkiu edo arma

Aita Samuele Cultrera'k italieraz idatzi ta Arbelaitz kaputxinoak euskeratutako irakur-gaia.


10 EŖIAL



# AŖgia'ren Egutegia

1922, 1923 eta 1924







**AÑALDEA**



ADALDEA



74692  
78631

ARGIA'ren idaztiak

AV  
34647

---

ETXANIZ'tař NEMESI

# A'raldea

IPUI ZA'RA



DONOSTIA

Loyola'tař Iñaki Deunaren irafkola. — Garibai, 28

—  
1923



UNIVERSITY OF CHICAGO

PHYSICS DEPARTMENT

PHYSICS 351


1963-64



PHYSICS 351

1963-64





## I

### Su ondoan

Gau ura, neguan oi-diranez, iluna zan. Aurrean genduan itxasoak olatu biziz eta ekaitz-indaiez arotua : zerua tximist-oruka : aizea, kalezoko ta leyo-zirikixtoetan txistuka. ¡Gau artan etxetik ate girorik etzan!

Ni umea ere ba-nintzan artean eta egualdi beltz arek oso bilduritzen ninduan. Antxe, apal-ondoan gaztaña ereak kolkoan nituala, su-ondoratu nintzakion nere aitari; ta bere alboan nere baruko bildura uxatu nairik, eskuak bere belau-netan nituala, gaztaña zuritzen eta jaten ekin nion.

Gau artan aitaren begiak, kezka bildurgarri batek ba-leragie bezela, beltzagoak ziran. Ni ezer galdetzen ausartu gabe, zai-zai ta eten gabe begira jarri nintzakion.

Noizbait nigana itzuli zan ta bere antz iluna galtzeke, nere eskuak berien artean igurtzi zizkidan.



—« ¿Seme, entzun al-dezu beñere, Aíaldeko Garbaidunarena (Penitentearena)? »

Au entzun-orduko anai guziak aitarenganatu ziran bizi-bizi, ta onek gure gogoa barneatu zuen ezkerro, onela ekin zion :

## II

### Oitura zaía

Ez nuan neuk ikusi, nere amonari entzun bai-nion; ta arek ere bere amak ikusi ta berari aditua zuala, zion. Aspaldikoa da ba, gertaera au. Alare entzun nuenetik josi-josiak ditut nere gogoan Aíalde'ko aitz-mutuak.

Gure Zarautz onetan, orain aztutako amaika oitura eder ta ikusgarí ba-ziran antxiñan. Oyen arítean Garbaidunena (Penitentiena), ikusgarí-enetakoa zenduten. Garbaidunak eríko gizasemeak oi-ziran, ez lekaideak (praileak) : ta noizean-bein, Azpeiti-bideko « Villa Padierna » jauregi-aldean gabaz batu oi-ziran.

Bakoitza bere bidez, argitzale bat aldameanean ta buñizko kate sendoak soñean zituala, jauregi aren ingururatzen ziran. Andik asi ta guziak ibildeuna (prozesioa) egiñaz, batera eríratzen ziran. ¡Ikusgaría zan gero egun ayetan alderdi ura! Erítik gabaren ilunpean ainbat argi sofil agertzen ziran, ta Garbaidunen otoitz eta



kate-otsak, itzalgarriagotzen zuten bide artako ilunpe beitzak.

### III

## Odolbeltz

Garai artan eriko gizonen artean, ba-zan gizatxañ bat : betokeñ, bekozko-ilun, biotz-gogor eta lapurra. Bere eskuetan erukariren bat il otezuan ere, ba-zan zuru-murua baztarretan. Guziak aren asmo okeñen bildur ziran, ta umeak bere izena entzutea aski zuten bertanbela igesi ekiteko.

Izena ere bere izakereari zegokiena zuan : eriak, oi-duan bezin egoki, jari bai-zion. « Odolbeltz » deitu zioten ta Odolbeltz gelditu zitzayon befiko. Gazte-garayan, oi danez, maitasun-izpiantza sortu zitzayon bere biotz beltzean: bafia beste gizonei biotz-bigun eta gozatzale oi-zayena, ari biotz-garatz eta uratzale izan zitzayon.

Eriko nexka garbi, apal, begi-urdin-ezti bat bein begiz jo zuan, ta gogorik txikiena ere bere buruari ukatzen etzekielako: oraingo bere maitasun oni galerazen ipiñiko ziotenik ere, etzuan uste. Ala zan bere ustea, bafia aren usteak-uste, jokoak gaizki irten zion, ta Manñoni (ala zeritzan neskatxa) beste gazte on, langile ta kideko batekin ezkondu zan.

Odolbeltz'ek Manñoni'ri zion goñotoa, ordutik



ezkerokoa. Ta zoritxaréz, Mantoni'ri bi urteburuan, umetxo bat uzten ziola, senar gaztea il zitzayon. ¡Eriotz beltza ta eskutukoa ura! Goizgoiz lanera zijoazen baseñitar batzuek bide-értz batean luze-luze zetzala, bilatu zuten. ¿Nork il ote? Nola? Zergatik gero? Guziak erantzun berbera zekarñen: « ¡jamaika aráyepola! eriotz ortan Odolbeltz'en ezkoa ez tala zuri gelditu! Bai, giza-txar ori orñenbeste ta geyago ere egiteko lain badek ». Garbi itz-egiteko kemenik inork ez ordea: Odolbeltz'i bildur bai-zioten.

#### IV

### !Gaxoa!

¡Mantoni'ren negarñak! ¡bere biotzeko ilunpe beltza! ¿Nork neurñtu gero? Inork ere. Bere ume gaxoa lepoan arñtu, jaso bere besoetan, laztandu, berari begira-begira jarñi ta azkenean, biotzean estutzen zuala, negarñ ta negarñ, ta negarnez ezin ase alarñgun naigabetua.

Odolbeltz ostera, egun gutxi-barñu, gau ta egun jarñaika asi zitzayon, ta lengo naigabez gañera ikaraz ta bildurnez lotua zekarñen Mantoni erukañia.

—Mantoni, oraintxe ba : senarñ il zatzu-ta... nerekin nai ba'zenduke...

—Beñere, erantzuten zion Mantoni'k.

—Nere maitasunak zure biotzaren utsa bete-



ko du. Nere zoriona zurekin ta zuretzat nere...

—Neretzat il zaidan senara besterik etzan bai, ta ura joan zaidan ezkerko malkoa besterik ez dute nere begiak : biotzak beriz... ¡oi, au gau beltza!

Itz auekin batera negarari ematen zion. Odolbeltz gaiztoa ordea, negarak erukitu bearean, su bizian jaitzen zuan. ¡Alakotxea zan bere biotz makuia!

—¿Ez al-dakizu zein naizen?—erasotzen zion ikaragari alargun gaxoari.—¡Onean makuitzen ezpazera ba, txarean ondo ezagutu bear nazu, oratik!

Onelakoak oi-ziran gaxoaren egunak senara il zitzayonetik; ta gizon aren bildurak bein-edo-bein bere biotza makuituko-ez-makuituko bazerabilen ere, senar zanak utzitako umea ikusteak bere gogoa sendotzen zion ta alperik ziran Odolbeltz'en alegin guziak. Alargunaren biotza ildako senarean zegoan ta beste ezkontzarik etzuan nai.

Urte bat, bi, iru. Manioni beti-re zuzen, beti-re garai. Odolbeltz'en biotzak maitasun-antz guziak bein-betiko galdu zituan, eta gofoto-ukeldeari ate zabala iriki zion. Jari zan len maite zuenaren ondoren, bigundu ezin zuan biotz ua bere aizto (kutxilo) gaizkileaz zatitzeko : baña ardi sotilak beti-re otso amoratuaren aginetatik iges-egiten zuan.

Alako baten, sulezeko (inpernuko) etsayak-



edo... gofoto zuan emakumea iltzeko aukera-egin zion.

—Biar, zion Odolbeltz'ek, gabaz Garbaidunak (penitenteak) batzekoak difuk, neu-re garbaidun jantziko nauk... Garbaidunei argi-egitea bearekoa dek bai, ta bidea argitu dizadan Manfoni'ri ots-egingo ziot... Gaba ilun... noizbait bakarik geldituko gaituk... !A, emakume aro ori biar nere eskuetan il-beara dek!

## V

### Otsoaren eraso

Esan bezela egin ere. Biaramonean Odolbeltz'ek garbai-nekale-jantzita geritu zuan gaberrako. Manfoni bederatzi ta erdietan apaldu, umea lotaratu ta sukaldeko ontziak garbitzen asi zan. Onetan ari zala, ate-joka ekiten diote... Biotzak gorako bat egin zion ate-otsa aditzeakoan ta berez bezela umea lotan zeukan seaskara begiak joan zitzaizkion : baruak ikara zegion ume ua azkenengo aldiz ba-lekus bezela.

Bereala beste bi ate-ots : azkar-azkar ta dar-daraz aratzen da. ¡Gaba zorgin-zuloa baño beltzago zetoñen! Luzetu argia zein ote-zetoñkion ikusteko ta... ¡ene!... kurixka bat egiñaz gorputzak atzera egin zion. « ¡Odolbeltz ordu ayetan! ¿Zertarako gero? Onerako ez, noski ».

Auferatzen zayo Garbaidun-jantzian andre



izutuari : goitik berañoko soñeko lodi auts-mar-  
goduna (koloreduna) zuan; bizkañetik beriz kate  
ra burni-lokiak.



—« Aizu, etxekoandre—esan zion—gaur gar-  
bai-nekalietakoa naiz-ta argi-zadazu bidea ».



Manñoni'k bilduñaren-bilduñez zer erantzunik ere etzekien. « ¡Odolbeltz'i argi-egin gau itzal arñtan! ¡Ai ene, ta gizon arek, bera ilda, goñoto guñziak ase naiko zituan! Ta ori jakinda-re joan egin beañ... bai ba, Garbaidunak beren arñgitzalea aukeratzeko eskubidea zuten-eta, nai-ta-nai-ezkoñoa zan arñgi-egitea ».

Itzik ateratzeko, itxu antzean, arñtu zuan arñkontzia (arñgi ontzia) : umeari bi laztan ixil-ixilak eman zizkion ta, biotza erdi-bi, Odolbeltz atzetik zuela atera zan. Etxe-tarñtean biak ixil-ixilik zijoazen; andrea auñenen, noizean-bein atzera zearñka begiratuaz ta gizonagandik al-zuen urñtiena; gizona beñiz Agurñtza (Eñrosarioa) otoiztuaz begiak luñean josita ben-ben atzetik.

Muno'ra (1) eldu ziranean, andrea etxeak alde batera utzita eñritik irñtetzeko bidea zeramatela ikusirik, geroago ta bildurñtiago zijoan.

—¿Nora goaz?—galdetu zion garbaidunari.

Odolbeltz'ek bere otoitz-antza uzteke, abost itzalgarñiz, « Kolarko'ko ituñira » erantzun zion.

Emakumea toki artara zeramatela entzuteakoan, dardaraz asi zan. Badakizute ituñi au nun dagon. Getari'ko bide zabalera irñtetzeakoan, Granada'ko Duke-jauregi-aldetik beste aldera zuba ba-dezute : orñ bada, Duke-jauregiaren bestaldera baratza itxia ikusi leikezue. Ituñi ori orñtxe

(1) Zarauz'ko ondarñtza (plai) ondoan dagon enparanñtza (plaza.)



dago : orain orma-baŕuan noski, baña garai ar-  
tan ormarik eta aterik etzan. Guzientzat zabalik  
bai-zegon.

Iturria bera baño-re bildurgarriagoa zuten ara-  
ko bidea.—¿Zergatik ote?—Orduan Getari'ko  
bitxabalik etzalako. Orain alderdi ayetan bide za-  
bal eta argia dezute : baño gure gertari onen ga-  
rayan mendia ta itxas-eritzeko aitz sola besterik  
etzan. Manñoni ta Odolbeltz'ek bada, ondaritza-  
tik (plaitik) iturira aitza besterik etzuten.

## VI

### Ilunpean argi

Utzi ditzagun pixka bateko gure garbaidun ta  
berekin dijoan emakume izutua. Beste garbaidu-  
nak ikusi bear ditugu. Irakurle, oitura arigaria  
ikusteko zaude. Atozea nerekin ta sartu zaitte,  
aren, ixil-ixilik Azpeiti'rako bitxabalean (kami-  
ñuan). An datoz eri-aldeetik bana-banaka, orain  
askok parez ikusiko lituzketen, baña orduan be-  
girakunez ta lotsaz ikusten zituzten garbaidu-  
nak.

Gure aurekoak dira. Etzaitte zu beintzat pa-  
rez asi : ordukoak bezela, begirakunez ta ariga-  
riz geldi zaitte beren aurean. ¡Ayen sinismen sen-  
doak gure artean iraungo ba'lu, ez giñake orain-  
go euskaldunik asko geran bezin lotsagarriak  
izango! ez oixe!



Ara or bide-erdian guregana datozen argi bat. Auretik argiak datozena, Zarauz'ko etxerik ospetsuenetakoa dezu: aren atzetik, saku zati bat bizkañetik bera, esku-oinak katez lotuak, begiak luzean ta ezpañak otoika dakanzkien oreak etzuan orañarte orelako apal-itxurarik. Bera ere etxe oneko jauna ta argi-egiten dijoakionaren etsai amoratua zan: baña orain goñoto-kutsuak Jainkoaren aurrean garbitu nairik, len goñoto-zuana-  
ren ondoren apal-apal pekatari-jantzian dijoakizu. ¡Ori bide zuzena!

¿Ta urutiago datozen beste bikote ua? Ene! oixen da aritzeko bilguna! Ile zuria batek buruan ta besteak beriz ume-iria arpegian. ¿Nola ote? Garbaidun-eguna eldu danean aiton zatiak bere soñeko zakaña jantzi du: an dago iloba txikia aitonaren soñekoari bildur-antzean begira. Aitonak eskutik eldu ta: «Ilobatxo maitea, dioyo, atoz gauñ nerekin. Neri orelaxe erakutsi zidaten nere aurrekoak eta zuk ere Jainko-barkapena nola eskatu bear dan, gauñ gabeen ikasiko dezu. Atoz: zu auretik argi-egiten; ni Jainko'ari eruki-eske zure ondoren». Ta ala datoz biak.

Or beste bi ere. Ama—¡gaxoa!—il zaye-ta, aren gogoa (anima) lenbailen zeruratzeko, beren buruen beratze au Jainko'ari eskeintzen diote. ¡Seme onak ala bear!

Oyen antzera beste argi eta argiak ere nun-nai azaltzen dira. Bide biuratan arutz-onuzka: agertu ta eskutatu: bein eskeñera ta beste bein



eskuira : eritik eta inguruko baserietatik. Gau onetan ezta gizon edo emakume azirik etxebarruan gelditu : umetxoren bat zaitu bearik-edo ez izanik beintzat. Zarautz guzia ementxe bildu zaigu.

Argitzaleak len esan degun jauregi alderario laguntzeko beara zuten; ez baña andik erira beriz itzultzerario. Inoiz garbaidunak berak bideerdario bakarrik laguntzeko agintzen zion bere argitzaleari, ta orduan arario bakarrik lagundu bear zion. Ala-re askotan argitzaleak, beriz eriratu-arte bere gogoz lagundu oi-zion.

Odolbeltz'ek, ikusi degunez, Kolarko'ko iturario bakarrik laguntzeko agindu dio Manioni'ri : ara ezkerro ezta beaz geyago lagundu bearik. Gerotxoago auei ere jaraituko diegu : bitartean beste garbaidunekin egongo gera.

Ara poliki-poliki bi mordoxkatan nola zatitzen diran : baita banaka-banaka bidearen bi erizetatik erirutzen nola ekiten dioten ere. Orain gu Eleiz-ondora goazen, andik etoera obeto ikusiko degu-ta.

Lenengoak bide-muturrean agertzen asi dira : zugatz-arteon bi argi-leo (ilera) luzetzen-luzetzen... izorgin-talde bat edo anime gaxoen batzuek ote-diran ere esan liteke! Alakotxe ixil eta astiro datoz. Ez beti baño; inoiz ixil bildurgarria kate-otsak uratzen du... garbaidunen kateena dezue... Itxasoko olatuen burunda ayen otoitz-suru-muruaz nasten da, ta bien bitartean eriko



etxe banatuak argi goñ-ilunez jazten ari dira.

¡Garbaidun gaua! ¡gau itzalgarria! Beren argia garbitokiko (purgatorioko) su-txinpartak dirudite : *Miserere mei!*... Eruki ni! eruki ni! oska ari zaizkigula esan bea. ¡Ai, anima gaxo ayek luera etori al-balitezke! ¡zer gorputz-urátze ta ze nere eramango lituzketen beren utsak garbitzeagatik!

Sulezetik (inpernutik) ere deadarka ari zaizkigula dirudi. « ¡Oi nere zorigaitza! ¡oi nere gau beltza! Oraindik luera zaudeten gizonok, or zaudeten bitartean zeuen pekatua garbi itzazute. Gero garbitzerik eztago-ta. ¡Ai au il-eziña! ¡Ai au betiko beara ».

Garbaidunak (penitenteak) beren azken-otoitzak egitera Eleizan sartu dira. Oraintxe itxi du azkenengoak Elizeko samera, ta andik-ate gelditzen zan argi pifia berarekin urtu da... ¡Oi, au beltz gelditu da eri-baru! Akelar'ko sapoak ere ixilik daude gau onetan. Lu' guzia ilunak irintsi duala, dirudi...

Bańan... ¡zaude geldik!... ¿zer zarata da ori? ¿zer oin-zalaparta? Emakume-kuixka bat entzun ote-dedan, nago... Bai... ara beñiz ere... Orain gizonen baten itz asaratu... ¡emakumearen ondoren aizto (kutxilo) bat eskuan duala, dijoa!... ¡Oi! ¿bera da? ¡Odol beltz!... ta igesi dijoan emakumea... ¡Manñoni! ¿Zer dute? ¿nundik nora agertu zaizkigu emen? Atoz nerekin pixka baten ta lenago utzi ditugun tokian bertan ar ditzagun biak.



Muno'an, ondaratzatik zia' iturirako bidean eki-  
fekotan utzi ditugu len. Goazen araxe ta beren  
begietatik eskutu, jarai dizayegun.

## VII

### Aitz-arztean igesi

Emakume eruka'ria geroago ta kezkatuago  
zegoan : Odolbeltz'ek noiz erasoko-bildu'ez,  
beti-re atzera begiraka. ¡Alderdi guzia ixil-ixilik!  
Iñoren azta'ranik ez : garbaidun gaiztoaren kate-  
otsa baka'rik.

Noizbait aitz-arztean zia' asi ziran. (« A'raldea  
zayo izena toki ari, *a'riz* betea dagoalako) ta  
emakumea gizonagandik al-zuen urutiena zijoan.  
Iñoiz gizona katez lotua zeto'elako, atzeratu  
egiten zan ta Man'foni aitz-ga'ñetan, ua igo-zai.  
a'rgi-egi'ñaz gelditzen zitzayon.

Odolbeltz'en a'rpegiak A'ralde'ko ilunpean  
izuga'riagoa zirudien : itxasoko olatuak ondar-  
tzan (plaiian) le'rtzeakoan, ba'ru-ba'ru'ra'ñoiko ikara  
beltza zemayoten Man'foni'ri. « ¡Ara nere azke-  
na! zion. ¡Oraintxe erasoko dit gizatxa' o'rek :  
emen det laste' bere aizto gaizkileaz nere biotza  
erdibitzera! ¡Au la'ria! au egoera beltza! ».

Azkenengo aitzera eldu ziran. Odolbeltz ka-  
teagatik nekezago zeto'ren a'ztean : Man'foni'k  
be'riz, oi-zuanez, arin arin aitz-mutu'era'ño igo  
zuan. ¿Zer egingo? Antxe zegon itur'ia : Odol-





beltz'ek araño bakarik laguntzeko agindu zion  
lentxeago.

« Agindu bezela egin det, esan zuan bere ar -



tean emakumeak. Une bat geyago gelditzen bainaiz, ementxe ilko nau gizatxar orek. ¡Aingeru Zaitzalea, zaitu nazazu! ».

Besterik gabe artzen du arkontzia (argi-ontzia) ta, gizonak bere-zai an dagola sinistu dezan, aitz-gañean uzten du. Gero tximista baño ariñago aitz-arítean igesi ekiten dio. Bildurak egak zemaizkiola zirudien. ¡Aren lasterketat! ¡Aren aitzulo-gañak azkar igarotzea!

Odolbeltz, emakumeak uste bezela, aitz-gañean zegon argia ikusirik emakumea ere an zualakoan, ba-zijoan. Baña aitza gaindu zue-neko bere atzipena (engañoa) ta emakumerik eza ager zitzaizkion. Bertan ao beltz arek birao (maldizio) naskagarí bat bota zuan. Alde guzietara begira ekiten dio: gabaren ilunpe beltza besterik ez... Amoroaren-amoroaz kate gogoraz soña joka asi zan. Alako baten andrearen gona goña Muno'an gora begiztatzen du.

¡A!—¿Ikusi al-dezute arano beltza bere atzapañak gerturik; oñeztaña baño ariñago arkume gaxoaren gañera erortzen; ta lenengo heraso-aldiak uts-egiten ba-dio, bigarren aldiz amoro bi-ziagoaz begi-idiki batean goi-goitik bera zorotz bere burua botatzen?

Alaxe ba Odolbeltz'ek, bere atzapañetan zekañen emakumeak igesi ta beñero nabaitu zua-nean, begi beltz ayek ilunpean argitu zitzaizkion, ta soñean zituan kate ta guzti goñotozantzo bat egiñaz, ipaña olatu-gañean baño ariñago,



aitzez-aitz ondaritza-aldera lasterka ekin zion.

Gaizkilien begiak zer dutenik eztaikit nik :  
baña ilunperako egiñak dirudite. ¿Beren azkena  
tokirik ilunena, sulezea (inpernua) oi-dutelako  
ote? Ala nunbait.

Odolbeltz une batean, aitz guztiak igaro ta,  
ondaritaratu zan. Alboko gauzei begiratzeke  
itxu-itxu zihoan. Emakumea bakarrik. Igesitako  
emakumearen goñoto itxu-amorotua bere biotz  
kixkalduan.


Itxasoa goraka zetorren ta uin (olatu) bakoi-  
tza ondaritzan leñtzeakoan, olatu gañean mamu  
arin-taldea egaka urbiltzen zan. Mamu arin ayek  
Odolbeltz'i belarñietaratzen zitzaizkion ta bere  
amoroa geitzeko, pañez ekiten zioten esanaz :  
« ¡A, kaskalu zara! Eure eskuan euki emakumea?  
ta azkenean bizirik iges egin ere bai? Eztaukak  
beriz arapaturik, alako kerten orrek! ».

Ontan beste olatua leñtzen zan ta an ziran pi-  
loka beste mamu-taldeak. Joaten zitzaizkion  
Odolbeltz'i ta batek oñetatik, besteak bizkarñetik  
bultzeka ekiten zioten : ¡Ia Odolbeltz! pixkat az-  
karago... ta eure eskuetan dek emakume arõ ori.  
¡Jo orñtan! ia eñi-bañuan bada-re arapatzen de-  
kan! Guziak garbaidunetara (Penitenteetara) joan  
dituk eta eñia utsik zegok. Elduyok antxe ta  
iñork ikusteke, il ta kiño. ¡A, orduan bai pozik  
ire biotza ta ase ire goñotoa!

Ta onela ziotela bultzeka zeramaten gizatxañ  
ura. Mamu ayek txerñenak (demonioak) ziran ta,



oi-dutenez, Odolbeltz'en gogo lizuna gaitzera  
geyago makurtu nai zuten. Onek, txerinen esa-



nak entzunda, goñoto-bururapen biziagoak zera-  
bilzkian bere barnean : ta zefiek itz-egiten zio-



nik ez ba-zekien ere, txerenen iseka (burla) ta algarak omoño-labe goría izutzen zioten bere biotzean.

Bitartean emakumea arnas-estuka, Muno'a igarota, kalean ziar tximista-utsean zijoan. Baña aitzetik arañoko bideaz indarák auldu ere batzaizkion eta gizona geroago ta uréago nabaitzen zuan. Antxe zegon bere etxea Itxas-kalea igarota berealaxe, baña atzean aditzen zuan oinotsak argi asko adirazten zion etxera baño lenago gizona gañian zuala.

Orduntxe, kale mutuía okertzeakoan, orpoz orpoz zetońkion Odolbeltz : ta bere azkena an zualakoan uste guztiak galdu zituan. Odolbeltz' en aiztoak (kutxiloak) gabaren ilunpean dir-dai egin zuan : arnas estu bat geyago, ta Mantoni' ren lepoan zan aizto galgaña. Baña onetan irist eginda luze-luze erori zan gizagaiztoa : baita ua sapoka ta biraoka zegon bitartean, emakumea etxeko atera azkar eldu ere.

Bi aga luze-aztunak batetik bestera sartzen ditu. Une bat gerotxoago an zan Odolbeltz atea bota beañean. Manñoni bilduñez ta ikaraz koxkolduta noraitu etzekiela, atea noiz eroriko-zai zegon. ¡Etxean bakar-bakarík; auzoan laguntza-eske asteko-re iñor ez!



## ¡Il da!

Alako baten Odolbeltz'en indańak atea aus-  
ten du, ta orduan ditu Manńoni'k estusun ta lańi  
guziak berekin. Odolbeltz'en begiak atea erori  
zaneko, otso gosefiarenak bezela, arńi-arńi  
ageńtu ziran Manńoni'ren begietan. ¡Orduntxe  
bai etzitzayola igesiko bere esku arńetik! ¡Antxe  
ordainduko zizkion ainbeste egunetako biotz-min  
eta gońotoak!

Ala uste : bańa Jaunaren begiak alako gaiz-  
takeririk ez ikusiko ¡ez oixel! Gaizkileak noiz-  
edo-noiz bere gogo zimurńak betetzea ba-liteke,  
bańa noizbait elduko zayo ari ere Jainkoaren ez-  
pata zońotza, ta buńnia uretan bezela, gaiztoaren  
gogoa (anima) sulezeko zoko beltzenera ero-  
riko da.

Estusunean, zeruak ate beńi bat iriki zion  
Manńoni'ri. Odolbeltz gańiera zetońkiola, ba-dijoa  
igesi ukulura : an dago etxeko zezena askan lo-  
tuta. Etxeko guztiak ondo ezagutzen ditu ta ala  
Manńoni'k bildurńik batere eztio. Azkatzen du abe-  
rea : adańetatik eltzen dio, ta gizona sańtu-zai  
zutik gelditzen da.

¡Ua bilguna emakume ta zezenarena! Au lepo  
sendoa okeńka, adań-zońotz, sudur-oska, ema-  
kumearen galtzoria usmatu balu bezelaxe eraso-  
zai. Ua beńiz, aitzurdin-irudia zirudiela, eskuak



zezen adarretan : begiak atean josiak : arpegia zuri-zuri : ileak arutz-onutz. Antxiñeko emakume garale bat zala, esan bea.

Une bat geroago izan ba'litx, galtzen zan Manñoni. Odolbeltz, aizto gaizkilea eskuian ta argia eskeñean duala, ikuluan sartzen da. Emakumea ilunpean begiztatu-orduko, ez zezen ta ez beste, baruko goñoto guziak eragiten diola, itxutxu bere gañera dijoa.

Gero... emakume-gañazi bat... zezen-oru ikaragarria urango, ta erio-deadañ laña egiñaz gorputz bat luze-luze luñera datoñ. ¡ll da!...

—¿Zein...? zein, aita? — eraso genion anai guziok batera.

—Aitak begiratu zigun eta ixil-ixilik gelditu zan. Txingoñak gogoñ jotzen zuan leyo-atea, ta aizeak, zirikixtotik ziañ, intziri luze bat bialdu zigun.

—¡Manñoni erukañia!... esan nun bilduñaren bilduñaz aitari gogoñ eutsirik.

—Etzan Manñoni, seme—erantzun zidan.

—¡A...!—egin genduan anai guziok arnasañtuaz.

Ta aitak, bertan ikusiko balu bezelaxe, onela jañaitu zion :

—Ez da Manñoni, ez. Odolbeltz da. Zezenaren adañ zoñotzak sayetsa idiki dio ta ikuluko ate-aldera odol-jario luzea dijoa.

Manñoni'k begiratzen dio pixka batean; gero zerura begira : « ¡Eskeñak Zuri, dio, nere Jainko



maite oñi! » ta beste itzik gabe luñera erortzen da. Ordu-arte bildurak eusten zion, baña azke arkitu daneko, ainbeste neke ta laritasunez etenda! gaxoa! txorabiatu egin da.

.....

Urango goiza... Eguzki-izpiak (erñuak) ikulu atetik sartuta barua argitzen dute. Ate-ondoan emakume bat dago, arnasa gabe dirudienez: arutzago, gizon bat datza: ta bien artean odol-erka luzea... Zezena bakarrik bizi dala dirudi: an dago gizonari sudur-oska jaikiten ote zayon zai bezela, baña jez ailperik!

Emakumea oster, beriro arnaska asten da: begiak irikitzen ditu: eskuak bekokira ba-daramazki... eztaki zer gertatzen zayon... Ontan besoak beratu ta « ¡Ene, odola! » dio, ta bat-batean gabeko gertapen guziak burura zaizkio. ¡Au beltzak, nere Jaungoikoa!

Baña era batean bere umetxoaren soñiak entzuten ditu, ta bizi-bizi aren seaskara dijoa. Auñ lri-pañez goiz-argiari agurka ari zan. Manñoni makuñtzen zayo: bere besoetan estu-estu artzen du: ta ama-biotzak bakarrik lezaken eran laztanduaz:—« Ene semetxo maitea dio, ¡ai! ta zure amatxo bart il ba'litz...! ».

.....



## ¡Jainkoak ala beikigu!

Aita ixildu zan : eta lenbizi Eleizan eta gero S. Prantzisko'ren semien lekaidetxean (konbentuan) ordulariak bana-banaka amań dan-dan jo zituan. Anai guziok elkańi begira genion ta, bilduńak eraginda, aitaren ondoragotu gińen.

Bańa ua, ordua aditzeakoan, jaiki zan eta bere aboskera aldatuaz : « Amańak, dio, ta ¿oraindik lotaratzeke? Jaiki ta goazen lo-gelatarra. ¡Gabon Jainkoak dizutela!

—Baita zuri-re.

—Ondo lo-egin!

—Biań arte!... »

Ni txikiena nitzan eta ez nion aitari alde egin.

—Aita ¿nik gauń zurekin lo-egingo, bai?

—¿Zergatik, seme?

—Odolbeltz'en ipuyak oso bilduńtu nau-ta, bakańik lotaratzen ez naiz ausańtzen.

—Atoz bada nerekin—esanda berekin eram-n ninduan.

Kalean aizea gogoń zebilen, ta kazkabańa kristelak ausi beańean zan. Soin guzia ikaraz nuala oeratu nintzan : gero luzaro loa nere begietatik uruti izan nuan. Noizbait ońatik, loak ańtu ninduan.

¡Ayek ziran amesak! An nitzan lasteń Ańalde'ko aitz-arte-an :—« ¡Ene! ¿zein da ori? ¡¡Odol-



beltz!! Ara bere aiztoaz neregana... ¡Aita!  
aita!... »

Onela esnatu nitzan oe-gañean zutik eta aitak eskutik elduta maiteki galdetzen zidala.— ¿Zer dezu, seme?

—¡A!... erantzun zion.—Odolbeltz amesetan nereganatzen ikusi det, baña... ¿ez da egia, ez aita?...

—Etzaite bilduritu, seme : ara ilaḡia zeruan iñoiz baño edeḡago.

Alaxe zan : egualdia oso aldatua zegon : zerua ozkarbi, izaḡez apaindua ta ilaḡia baztaḡ guziak aḡitzen zituala. Goizeko ordu biak ziran...

Urango egunean lagun-koskoḡ guziok Munno'an batuak geunden. Gure begiak Aḡalde'ra zijoazkigun, baña etzan iñor aratzeko gauza. Odolbeltz'en ipuya entzun ezkerotik, urutitik begiratzen genion alderdi ari.

Onela ibili giñan egunetan goitz-aḡatsaldero geure ogi puska eskuan genduela bakoitzak ipui beḡiak kontatuaz. Batek lapuḡ-eriotzak, besteak itxas-ekaitzak : Pernando Amezketara onek, Juanito txistularia arek, eta abar.

Gerora, urteak joan, urteak etoḡi, Aḡalde'ko Garbaidunaren irudia gure buruetatik igesi zan, ta irudiarekin batera bildura ere joan zitzaigun.

Orain beḡiz bururatu zait, eta pozez ta naigabez ibili oi-naiz Aḡalde aitzetan. Naigabez, gure eḡiak zituan ainbeste ta ainbeste ipui zaḡ ta asele




eder galtzen ari diralako :—pozez—ostera, euskal-gogoa beñiro ernetzen asi dalako, ta ernetze onek euskal-asaben biotzak gureetan piztuko dituelako. *¡Jainkoak noizbait zorion au bekigu.*

## AZKENA




















A



Pluteo

A

346